

## IRAKASLEEN EZ-ETORTZEAK ETA BAIMENAK

### EZ-ETORTZEAK

#### EZUSTEAN GERTATZEN DIRENAK

Ahalik eta lasterren zuzendaritzan abisua eman.

Zuzendaritzak koadernora.

Ahal bada, lana prestatu eta bidali institutura korreoaz:(ikasketa burutza, mintegi burua...).

#### IRAGARRITAKOAK

Ikasketa burutza jakinarazi eta liburutegiko koadernoan apuntatu.

Beti lana prestatu behar da eta dagokion karpeta behar den bezala adierazita utzi.

- Irakasleren baten bajak edo ez-etortzeak, ordezkapenik gabe luzatzen badira, mintegiburuek irakasle gabe gelditutako ikasleendako lana egokiak prestatzeko ardura hartuko dute.
- Gaixotzen garenean, bigarren egunean baja hartu behar da.

- Itzulitakoan faltak ikasketa burutza justifikatu behar dira.
- Agintzen diren lanak ikasleek bakarrik, inoren laguntza gabe, egiteko modukoak izan behar dira.

### BAIMENAK

Norberaren gauzak: urtean 3 egun arteko baimena eska daiteke. Baimen hauek ematea zuzendaritzaren esku gelditzen da, eta ikasleen eskubideak eskubide honen aurretik gelditzen dira. Orohar, baimena emateko justifikagiri bat izatea ezinbestekoa da, eta ez da onartuko oporrak edota zubiak luzatezko ezta bakoitzaren herriko festetarako.

Araudia ondoko helbidean kontsultatu daiteke:

<http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/informacion-laboral-rrhh/normativa> eta laburpena ondoko taulan:

<http://www.educacion.navarra.es/documents/27590/161954/09Cuadro+resumen.pdf/e5e65436-680b-4a7d-8d75-c3e167d077a3>